



guztiok bat

BATZAR NAGUSIA
OTSAILAK 13-14
BALUARTE, IRUÑA 2016



Iruñeko 1977ko Batzar Nagusi historikoa

la berrogei urte igaro dira Euzko Alderdi Jeltzaleak Iruñean bere lehen Batzar Nagusia egin zuenetik, frankismoaren bide ilun eta luzea gainditu ondoren. Batzar hura oso esanguratsua izan da Alderdiak une hartatik eta gaur egunera arte egin duen ibilbidean. Alderdi honen baitan mugimendu esanguratsuak eta aldaketa sakonak eman ziren, erakundea, idealak eta printzipioak argi eta garbi ezartzeko. Hori dena Nafarroako hiriburuko Amaia Hotelean eta Anaitasuna kiroldegian bizi zen martxoaren 24, 25, 26 eta 27an. Batzar hartan adierazi zen "hurrengo urteotan ukabila itxita ez izateko" nahia-Batzarrerako deialdia egin zen kartelean adierazten zen bezala- eta "kate zapaltzaileak apurtzeko baino, eskua irekita eta hurkoa agurtzeko eskaintzeko" zegoen borondatea. Gaur, 2016ko otsailean, Iruñera itzuli gara etorkizunera begira egin beharko ditugun lanak burutzera, hau da, Txostenak eguneratzea, Estatutuak eguneratzea eta Euzkadi Buru Batzarraren presidentea aukeratzea.

Baina, itzul gaitezen 1977 urtera. Ilusio urteak ziren, aldaketa eta suspertze politikoa bideratzeko urteak; errepresio urteak ere bai, eta, batez ere, talde armatu ezberdinek bortxazko jarduerak egiten zituzten urteak. Eta, nahaspila horren erdian, Euzko Alderdi Jeltzalea irten zen Euskadiko plazara. Esparru abertzalearen erreferente nagusia azalera irten zen urte haietan. Gaur egun indartsu eta kementsu segitzen du bere betiko goiburua betetzeko asmoz: Euskadi da euskotarren aberria.

Anaitasuna kiroldegian baloreak elkartu ziren, askatasun gosea eta urte luzeetan Euskadiko etxe eta baserri askotan ezkutatuta eta gordeta egon ziren ikurrinak erakutsi ziren. Guda zibil ankerrean borrokatu ziren herritarrak eta Frankoren diktaduraren azken urteak bizi izan zituzten lagunak elkartu ziren. Jeltzaleen batzar nagusi hartako unerik gogoangarrietakoa izan zen Manuel Irujori Batzarrean egin zitzaion harrera, erbestealdi derrigortutik zetorrelako. Anaitasuna gainezka bete zuten milaka lagunek txalo zaparrada beroa eskaini zioten orduan, errepublika garaiko Justizia Ministro izan zenari. Bertaratuen aurpegian antzematen zen giroaren beroa eta tentsioa. Juan de Ajuriaguerra, Pedro Basaldua, Joseba Azkarraga, Xabier Arzalluz, Mikel Estavillo, Julio Jauregui, Carlos Garaikoetxea, Kepa Sodupe, Mitxel Unzueta, Josu Bergara, Jesús Esnal, Joseba Leizaola, Patxi Ormazabal, Iñigo Agirre, Xabier Agirre, José B. Gerenabarrena, Carlos Claveria, Koldo Amezketza, eta beste hainbat izan ziren batzuek "alderdi zahar" izenez ezagutzen zuten talde politikoaren oinarri ideologikoak finkatzea eta herritarrak motibatzea lortu zutenak. Orduko "alderdi zaharra" une honetan da euskal politikagintzaren eragile nagusia, nazio mailako erakundeetan zein foru eta udal erakundeetan. Iruñeko mezuek indarrean diraute gaur egun. Hauxe da Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV).

1977ko martxoaren lau egun haietan EAJ-PNVk bere oinarri ideologikoak Euskadin eta Espainiar Estatu osoan bizi ziren garaietara egokitu zituen. Txosten batzuk aurkeztu ziren Euzko Alderdi Jeltzalea martxa onean jartzen laguntzeko. Lehen txostena antolakuntzari buruzkoa izan zen. Xabier Arzalluz txosten politikoa defendatzeko lana hartu zuen eta,

geroago, kulturari buruzko txostena aztertu zen, eztabaidako gai nagusia euskara izan zelarik. Beste alde batetik, Kepa Sodupe izan zen Txosten sozio-ekonomikoa aztertzeko eratu zen mahaiko burua. Azken egunean, martxoaren 27an, egoera politikoaren balorazioa eta kontuen zuriak egin zen eta hizlari nagusi izan ziren Xabier Arzalluz eta Juan Ajuriagerra.

Batzar honetan aukeratu ziren Hegoaldeko lau herrialdeetako Buru Batzarrak. Honela osatu ziren:

Araba Buru Batzarra:

Jon Urresti Uribe, Joseba Azkarraga Rodero, Francisco Ormazabal Zamakona, José B. Gerenabarrena Iriarte, Xabier Aguirre López, Fernando Castresana, Antonio Pérez Cuadrado, Miguel Ángel Estabillo Ferrer, Jesús M. Galarza, Ignacio M. Ortiz de Zárate, Ignacio M. Eguía, Juan Laburu.

Bizkai Buru Batzarra:

Xabier Arzalluz Antia, Iñigo Aguirre Kerexeta, Sabin Zubiri Sánchez, Juan Ajuriaguerra Otxandiano, Iñaki Anasagasti Olabeaga, Antón Ormaza Unamuno, Kepa Sodupe Korkuera, Juan José Pujana Arza, Sabin Intxaurre Mendibil, Josu Bergara Etxebarria.

Gipuzko Buru Batzarra:

Jesús M. Alcain Marticorena, Tomás Aizpurua Cincunegi, Gerardo Bujanda Sarasola, Jesús Esnal Uranga, Joseba Leizaola Azpiazu, Román Sodupe Olaizola, Eli Galdos Zubia, M. Pilar Zubinas Darras, Andoni Idoyaga.

Napar Buru Batzarra:

Carlos Claveria Arza, Carlos Garaikoetxea Urrutia, Xabier Amatria Zudaire, José Luis García Falces, Koldo Amezketa Díaz, Andrés Armendáiz Ibiricu, Jacinto Goñi, Patxi Leiza, José Larrea, José Miguel Aguirre, Pedrocho Mangado Cortes, Pello Irujo Elizalde, Juan M. Feliú, Mari Sol Berraondo, Javier Cunchillos.

